

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

KONTROL MOZIOA HONDARTZETAKO KABINETARA SARTZEKO AUKERA DELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hil honetan dagokion batzordean azaldu genuen bezala, Kirol Txartela duten pertsonen artean asko dira udaro kexa aurkezten dutenak, bide desberdinetatik, Donostiako hondartzetako kabinak doan erabiltzeko aukerarik ez dutelako. Gaur egun kabinak doan erabiltzeko aukera dago urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta, uda ondoren, urriaren 1etik abenduaren 31ra.

Herritarrek eskatzen dute ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean ere aukera izatea kabinetara sartzeko kirol txartelarekin. Herritar horien iritziz, hondartzako kabinak doan erabiltzeko aukera egon behar luke, edozein abonaturik kiroldegietako dutxak urte osoan zehar erabil ditzakeen bezala.

Hori horrela, uste dugu zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketapeko instalazioen funtzionamendua arautzen duen araudian atal bat gehitu behar litzatekeela hondartzei eta hondartzetako instalazioei buruz. Helburua da herritarrek beren eskubideak bermatuta ikustea udal instalazio guztietan eta formula erraz eta eraginkorrek ezartzea erabiltzaileekin komunikazio iraunkorra izateko, haiek guri beren kezkek helarazteko parte hartzearen kultura ezar dadin moduan.

Batzordean zinegotzi ordezkariak argudiatu zuen kirol txartelaren titularrek hondartzetako kabinak udan ere erabiltzeko aukera izanez gero, zitekeena zela kabinak gainezka egotea, baina horri buruz inolako datu edo informaziorik eman ez zuenez, ez dakigu konklusio hori datu kontrastatuen emaitza den edo uste subjektibo bat den.

Horiek horrela, aipatutako kexa horiek guztiak jaso ondoren, hau da gure



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

irabazi
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio baimena eman dezala kirol txartelaren titularrak hondartzetako kabinetara urte osoan zehar doan sartzeko.

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.